

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI). APARTAMENTUAK 2018KO IRAILA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %25,7 gehitu dira 2018ko irailean

Hotel, landetxe eta apartamentu turistiko guztiak aintzat hartuz gero, ostatu-gauek %7,5 egin dute gora irailean zehar

27.236 ostatu-gau erregistratu dira 2018ko irailean zehar Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Hori %25,7ko gorakada da aurreko urteko irailaren aldean, Eustaten datuen arabera.

Ostatu-gauek urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %54,6 igo dira, Araban %19,6 eta Bizkaian %11,5.

Bidaiarien sarrerak, bestalde, 7.308 izan dira 2018ko irailean Euskal AEko apartamentu turistikoetan, zeina %11,0ko gorakada den. Lurraldeka, bidaiarien sarrerek Gipuzkoan %27,1 egin dute gora eta %8,0 Bizkaian, baina %10,2ko beherakada izan dute Araban.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Iraila

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	09/18	m/m-12 (%)	09/18	m/m-12 (%)	09/18	09/2017
EUSKAL AE	27.236	25,7	7.308	11,0	3,73	3,29
Estatukoak	19.168	24,7	4.808	8,0	3,99	3,45
Atzeritarrak	8.068	28,0	2.500	17,4	3,23	2,96
ARABA/ÁLAVA	6.814	19,6	892	-10,2	7,64	5,73
Estatukoak	5.881	22,2	793	-11,7	7,42	5,36
Atzeritarrak	933	5,8	99	3,5	9,39	9,19
BIZKAIA	11.060	11,5	3.892	8,0	2,84	2,75
Estatukoak	7.028	8,1	2.452	2,0	2,87	2,70
Atzeritarrak	4.032	17,9	1.439	20,1	2,80	2,85
GIPUZKOA	9.363	54,6	2.524	27,1	3,71	3,05
Estatukoak	6.260	54,3	1.563	35,8	4,00	3,52
Atzeritarrak	3.103	55,1	961	15,1	3,23	2,40

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Egonaldien batezbestekoa 3,73 egunekoa izan da aurtengo irailean, 2017ko irailean izandako 3,29 eguneko batezbesteko egonaldiaren gainetik. Arabako egonaldiak iazko irailean 5,73 egunekoak izatetik 7,64 egunekoak izatera igaro dira aurtengoan; Bizkaiaren kasuan, 2,75 egunetik 2,84 egunera luzatu dira egonaldiak; Gipuzkoan ere egonaldien batezbestekoak gora egin du, 2017ko iraileko 3,05 egunetik 3,71 egunekora iraganen aurtengo irailean.

Turisten balantzea 2018ko irailean

Hotel, landetxe eta apartamentu guztiak aintzat hartuz gero, 324.749 sarrera egon dira 2018ko irailean; %3,8ko gorakada da hori aurreko urteko hil berberarekiko. Bizkaiak Euskal AEko sarrera guztien %46,2 kontzentratzen du eta sarrera guztien batuketak %1,9 egin du gora. Gipuzkoak Erkidegoko sarreraren %39,7 hartu du eta bere gorakada %8,4koa izan da; Araban, zeinek sarrera guztien %14,1 hartu baitu, %2,3ko beherakada izan da.

Ostatu-gauek %7,5 egin dute gora establezimendu turistiko hartzaileen guztizkoan, eta gorakada hori hiru lurraldeetan gertatu da: %12,1 Gipuzkoan, %6,3 Araban eta %3,8 Bizkaian.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaualdiak bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Iraila

	Gaualdiak		Sarrerak	
	09/18	m/m-12 (%)	09/18	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	674.754	7,5	324.749	3,8
Araba/Álava	91.571	6,3	45.606	-2,3
Bizkaia	297.996	3,8	150.087	1,9
Gipuzkoa	285.188	12,1	129.056	8,4

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62